

Arrautza Jaurtiketarako Industria Diseinuaren ohiko Lehiaketaren IX. edizioa ospatu du Mondragon Unibertsitateak

2008/05/15

- Lehiaketaren helburua ikasleek arrautza babestuko duen jaurtitze-tramankulua diseinatzea da. Arrautza hautsi gabe urrunen jaurtitzea lortzen dutenek irabazten dute.
- Tramankulua diseinatzeko, ikasleek tamaina ertaineko oilo-arrautza, kartoi mehea, soka eta ukipen-kola soilik erabili ditzakete.
- Ikasleen diseinuak hiru kategoria aintzat harturik saritzen ditu Unibertsitateak: distantzia, diseinua eta hegaldia.

Arrasate, 2008ko maiatzaren 15a. Mondragon Unibertsitateak Arrautza Jaurtiketarako Industria Diseinuaren ohiko Lehiaketaren IX. edizioa ospatu du gaur, ostegunez. Jaurtitako arrautza ondoen babesten duen tramankulua saritzen du Unibertsitateak lehiaketa horretan. Hau da, arrautza hautsi gabe urrunen jaurtitzea lortzen duten ikasleek irabazten dute. Aukeratutako lekua Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoko Liburutegiaren eraikineko hirugarren solairuko leihoa izan da. Handik futbol-zelaira bota dituzte arrautzak ikasleek, euren tramankulu bitxiak erabiliz.

Tamaina ertaineko oilo-arrautzak (egosi edo ozpinez busti gabe eta agerian egon behar dena), kartoi mehea, soka edo kordela eta ukipen-kola dira ikasleek jaurtitze-tramankuluak diseinatzeko erabili ditzaketen material bakarrak. Behin tresna eraikita, zenbait oztopo gainditu behar dituzte: arrautza apurtu gabe harik eta urrunen jaurti, prototipo berritzaile eta erakargarria eraiki eta arrautzak hegaldi ikusgarria egin dezan lortzea. Industria-diseinurik eraginkor eta berritzaileena hiru kategoriatan saritu da: distantzia, diseinua eta hegaldia.

Guztira 14 taldek parte hartu dute lehiaketan, bakoitzak hiru eta bost ikaslez osatuta. Beraz, parte-hartzaileak 75 izan dira guztira. Haietatik, 65 Mondragon Unibertsitateko ikasleak ziren eta hamar bat Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko langileak.

Lehiaketaren asmatzaileak, hain zuzen, Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritzako irakasleak izan ziren. Ekimenaren helburua ikasle gazteen artean diseinatu eta berritzeko gaitasuna sustatzea zen. Pixkanaka, ekimena ospetsu bihurtu zen Unibertsitateko gainerako ikasleen artean eta, horregatik, gainerako ikasle eta ikasketa guztiei irekitzea erabaki zuten.

Edizio honen irabazleak kategoria desberdinetan hauek izan dira:

Distantzia: Egoitz Segurola, Maitane Ayala, Lier Errasti, Josu Etxebarria, Mikel Azkargorta.

Diseinua: Joanes Mandaluriz, Iñaki López de Maturana, Amaia Etxebarria, Alvaro García, Mikel Zaldua.

Hegaldia: Mikel Berriozabalgotioa, Alaine Etxebarrieta, Ibone Catelin, Alazne Ormazza, Jaione Urrestilla.

Berezia: Itsaso Buruaga, Administrazio Sailekoa.



Irabazleak distantzia kategorian